

Udako irakurketak, igerilekuan

Bilboko udal liburutegiek eta Uribe Kostako Mankomunitateak liburuak kalera atera dituzte, irakurzaletasuna sustatzeko xedez.

Ibai Maruri. Bilbo

Eguzkitan etzan edo bainu bat hartzeko asmoarekin joan, eta ume koadrila aurkitu gazte baten inguruan. Begiraleetako bat da. Ipuina irakurtzen ari da. Txikiek adi-adi jarraitzen dute berak kontatzen duena. Eguraldia lagun, horrelako egoerak erraz ikus daitezke uda parte honetan Txurdinagako igerilekuan. Izan ere, Bilboko Udal Liburutegien Sareak liburuak kalera ateratzea erabaki du, zazpigarren urtez. Eta nora hobeto igerilekura baino. Irakurzaletasuna sustatzea eta herritarrak udal liburutegietara erakartzea dira helburu nagusiak.

Iraileko lehen igandera bitartean egongo da programa martxan, Txurdinaga nahiz Fangoko igerilekuetan. Ordutegia malgua izango da uda osoan: eguerdiko hamabietatik iluntzeko zortziak arte, astelehenetik igandera, jaiegunak barne.

Hiru mila liburutik gora izango dituzte eskura hara biltzen direnek; eleberrigintzako azken nobedadeak batez ere, euskaraz eta gazteleraz. Hasitakoa bukatu ez eta etxean irakurtzen jarraitu nahi izanez gero, arazorik ez. Liburutegiko txartelarekin, hamabost egunetarako maileguan har daitezke. Ez dagoen libururen bat nahi izanez gero, gertueneko udal liburutegitik ekarriko dute.

Horretaz gain, eguneko prentsa eta askotariko aldizkariei begirada bat emateko aukera dago. Guztia, debalde. Baina ez hori bakarrik. Etxeko txikienentzat tailerrak antolatu dituzte. Besteak beste, literaturaren mundura gerturatu, irudiak margotu edo orriak markatzeko txarteltxoak egingo dituzte, begiraleen laguntzarekin. Halere, gurasoen parte-hartzea ere bultzatu nahi dute. Azken batean, bazterrean zain egon ordez, ondoan eseri eta elkarrekin fantasiaren lurraldera jauzi egin dezatela.

Guztien zaletasunak, oster, ez dira berberak. Denek ez dute gustuko igerilekura joatea. Horiek ere doan irakurtzeko aukera izan dezaten, hiriburuko beste toki batzuetara zabaldu dute zerbitzua. Uztaila bukatu arte, adibidez, Zabala kalean antzeko karpa bat egongo da irekita, 18. zenbakiaren parean. Aurreko urteetan Mariaren Bihotza plaza izaten zuen kokalekua, baina han egiten ari diren lanak direla eta, tokiz aldatu behar izan dute.

Iaz 13.000 erabiltzailetik gora izan ziren ekimenean parte hartu zutenak. Oraingo honetan gehiago izatea nahi dute antolatzaileek.

HONDARTZAN ERE BAI.

Bilbokoa ez da era horretako egitasmo bakarra. Hirugarren urtez, Uribe Kostako Mankomunitateak Irakurketa Terrazak atondu ditu eskualdeko bost udalerritan: Berango, Sopela, Urduliz, Plentzia eta Gorniz. Uztailaren bukaera arte egongo dira martxan.

Mankomunitateko Euskara Sailekoentzat helburua argia da: lau eta hamabi urte bitarteko gaztetxoaren artean irakurzaletasuna bultzatu eta euskararen erabilera sustatzea. Izan ere, hizkuntza horrexetan daude umeei eskuragarri dituzten 450 liburuak. Bestetik, ipuin kontalariaren txokoa ere badago. Bertan, kultur aniztasun, osasun, ingurumen eta halako gaien inguruan hitz egingo dute, istorioen bidez.

Egitasmoa ibiltaria da. Ostegunean hasi eta igandera arte, asteko egun bakoitzean herri baten egoten dira: asteazkenetan Urdulizko Agirre Lehendakariaren plazan, ostegunetan Berangoko Morega parkean, ostiralean Sopelako Arrietara hondartzan, larunbatetan Plentziako hondartzan, eta igandeetan, azkenik, Gornizen. Eguraldiak huts eginez gero, aterpea bilatzen dute.

Fantasia giroa areagotzeko, begiraleak XX. mende hasierako bainujantzi, galtza eta txanoekin jantzita egoten dira. Horretaz gain, umeei eguzkitako krema ematen diete. Horixe da egitasmoaren beste funtsetako bat: txiki-txikitatik, eguzkitan jartzerakoan babesteak zer-nolako garrantzia duen ohartarazi eta horretaz jabetu daitezela.

Aukera horiek guztiak eskaintzen dituztela, uda honetan ez dago irakurri gabe geratzeko aitzakiarik.